

**“ECHECO ESCOLIA”**

Alizia Lauzirikaren ekutik heldu jat Juan Jose Mogelen “Echeco Escolia” deritxon liburua. 1816. urtean argitaratu zan lehenengoz eta bigarrenez 1845. urtean. Liburua, batez ere, baserritarrei zuzenduta dago: “eurac diralaco, gueijeenez, euscalzaleenac, ta liburu asco edo andijac iracurteco asti guitchi euquiric, biar dabeela liburutxu bat ceñetan icasi dai-queen biar dabeen guztija Necazari garvi ta Cristinau onac izateco”.

Nik daukadan edizioa, 1880. urtean, Bartzelonan, argitaratuta dago. Ordurako J. J. Mogel hilik egoan. Baina argitaratzai-leak gehigarri lez Mogelen beste liburutxu bat ere barruan sartzen dau: “Eguneroco lan on ta erregubetako” izenaz aurre-tiaz kaleratua.

Herriz, Markina-Xemeingoa nazanez, gustura irakurri izan dot. Alde batetik orain berrehun urte zelako euskerea egiten eben nire aurrekoak jakiteko eta bestetik zelako kristau ikasbidea aurkezten jaken orduko markinar fededunei ezagu-tzeko asmoz. Kontuan hartzekoa da, aldi haretan Juan Jose Mogel Xemeingo parrokoa ere bazala. Aukera biok dastatuz, eragin diferenteak sortu jataz barruan. Euskera aldetik ederra,

gustukoa. Kristau ikasbide aldetik ez jat hain atsegingarri iru-  
ditu.

### **Markinako euskeraren edertasuna**

Halan eta guztiz ere baditu laburpen politak Markinako euskera ederrean. Esaterako, hona hemen, gizadiaren duintasuna, jatorrizko pekatuaren muina, Jesusen bizitzaren laburpena, apostoluen eskastasuna, Elizak bere hasieran jasandako pertsekuzioen azalpenak eta abar.

### **Gizadiaren handitasuna ta libertatia:**

“¿Icusten dituzubeez cerubac, ta luurra eureen edertasun, gustijacaz? ¿Celan eguzquijac arguituten daben eguna, ta illarguiac gabari emoten deutzan laguntasuna? ¡Cembat izar eder goi zabaletan! ¡Cembat abere, egazti, patari, pistija, arrain, arbola, lora, vedar... luurrian! Bada guztjac dira Jaungoicuac ecerecetic atera, edo eguinac! Ez zan leleengotic ceru infernu, mundu, Aingueru, ez gizonic. Jaungoicua iru Personatan, asiera baga, bera beragan zoriojontasunez beteric. Ez eucan eceren preminaric, ez iñoren biarriac; baña bere ontasun ta amodijo utsez eguin cituban ceru, luur, Ainguerubac ta gizona. Leleengo gurasuac, jantzi cituban jaquiturija andi bategaz; emon eutseen escubidia abere, arrain ta lurreco gauceen gañian; ta librau orain daucaguzan gach ta eriotzatic. Pekaturic egin ezpalebee, eurac ta ondo-rengo guztioac vicico guiñan luurrian zorientasun andi baten; ta Jaungoicua gura ebanian eruango guenduzan cerura”.

Gizadiaren jatorrizko pekatuaren muina Jaungoiko pareko gura izatea izango da. Horixe izango da tentatzailearen proposamena.

“Jaungoicua gura izan eban guizonac bere aldetic cerbait eguitia, aimbeste onera munduban, ta betico glorijsac ceruban izango bacituban. Ataraco emon eutseen oneraco nai chaarre-

raco auquera edo libertadia, esquiniric sarijac oneentzat, ta castigubac deungueentzat (...) Baiña pecatubaren calterik andijee-na izan zan galdutia Jaungoicuaren amodijua, zarraturik alan betico ceruco atiac”.

“¿Cer egin Jaungoicuaren amodijora biurtuteco? Utsac ta ecerezac ciran guizonaren aleguinac, erantzuteco Jaungoicuari pekatubagaz egin eutsan injuriagaitik. ¿Cer da gizona Jaungoicoaren aurrian? Pecatubaren erru edo culpia, da amaigabia, dalaco Jaungoicuaren amodijo neurribaguiaren contraco eguitada esquergaiistocua; barriz guizonaren berezco alegiñac dira labur ta neurtubac. Biar zan pagatzalle amaibagaco bat, pecatubac garbitu ta zorrari erantzuteco; ta onetaraco ez eguan besterik Jaungicua bera baño, ceñec Jaungoicua zan aldetic ecin ezer padeaidu equian. ¿Zer egiten da ubada ontasun guztien ontasunac, bere justicijari osoro erantzun, ta gizona salveetaco? On-do daquizubee bigarren personia eguin zala gizon, ta emon citubala ataraco bere odol ta vicitzia”.

### **Jesusen bizitza eta Elizaren hasiera:**

“Jaungoicuac aguertu eutseen leenengo Adani, ta guero Patriarca santubei, celan ascatura izango zan guizona pecatutic, ta edeguico ciran ceruco misericordijeen iturriac. Adierazo eutsen gentei Igarla santubeen aoz, nos, nun, ce jatorritatic, ta celan jaijoco zan Doncella garbi baten erraijetatic. Elduric eracutsitaco demporia, Aingeru ta izarrac aguertu ebeen bere jaijotzia; ta cerubac lutubagaz, luurrac icariagaz, emon citubeen eureen Eguilliaren ilbarrijac. Ogueta amairu urte igaro cituban munduban, ta asqueneengo iru urteetan predicau eban bere Evanjelijo santuba. Vitztuten cituban illac, arguitu ichubac, zucendu errenac, osatu gaissuac, garbitu pecatarijac, ta aguertuten eban gauza guztietan bere Jaungoicotsuna. Ill ta irugarren egunian viztu zan; andic berrogei garrenian igon eban cerubetara gente talde andija beguira eguala. Aurrez aguindu eutseen Apostolu, ta discipulubei bialduco eutseela Espiritu Santuba ar-

guitutera, bere Ebanjelijo edo legue santuba predica uta zabal-  
duteco; izanic Judegubeen leenagoco leguia, barri onentzaco  
prestaera bat.

Jesusec esleidu edo escogidu cituban amabi guizon argal,  
jaquituriya, ez ondasun, ez entzute, ez agintaritza, ez beste  
munduco indar gauzari ceuracaz ebeenac; alan arguiruago  
eraeusteco nor zan bera, ta ez cebala munduco andijeen biarric  
bere doctrina garbija zabalduco, eguiñic tonto batzuben bi-  
dez, luurreco jaquituriya guztiac ez iños eguin, ta ez eguingo al  
ebana. Iminñi etseen apostolubeen icena. Bialdu eban cerutic  
aguindu eban leguez Espiritu Santuba, ceñec, beingo baten  
aberastu cituban munducuez gañetico jaquituriya, ta eureen lan  
andijetaraco biar citubeen berarizco doiacaz. Asi ciran predi-  
quetan, aituteen citubeela guztiac euren sermoic, egon arren  
berbeta desberdinetacuac entzuleen artian. Barristetan citubeen  
Jesusen milagruac illacaz ta vicijacaz. Zabalduten zan entzutia,  
urreratueta zan pilloca gentia euren berbara. Duaz ichasoz ta  
liorrez erriric erri, provincitic provincia, erreñuric erreñu, ta za-  
balduten dabee bazter guztietan subaren arintasunagaz Jesusen  
ceruco berbia.

Baña ez zan asco doctriña zabalduia, ez milagro andijac  
eguitia; ichi biar ebeen guizaaldi guztiejetarako testiganza argui  
bat ezagutu eraguiteco, ez zala asco icastia; gorde biarco zala  
leguia, goituric izan leitezcan eragozpenac; ta lurreco indar  
guztijac ecerezan cirala Jaungoicoaren gauzac deseguiteco. Be-  
gitandu jaqueen munduco aguintari, erregue ta emperadore as-  
cori, Jesusen doctriña zala eureen escubideen contracua, asi zi-  
ran Apostolu ta leleengo cristinaubacaz, ta jarratu ebeen guero-  
cuacaz, billatuten alde guztijetatic tormenturic gogorreentan  
ilteco, baldin ichi ezpeutseen Jesusen leguiari, eureenari jarrai-  
tuteco. Lau guizaalditaco sartu, ta sarri bigun ta aaztu eraguin  
nai ebeen lurrian Cristinubeen icena, ta esan euquian gizon  
aundi eta arruac neurtu gura citubeela eureen indarrac Jaungoi-  
kuagaz. Baiña ay! Eta cein ichubac diran gizoneen aleguiñac!

Cein argalac eureen aleguiñac Juangoicuaren aurrian! Bizi guztijac urten eutseen bestera.

Tormentubeen artian gueituric miraarijac, argituten ciran ugari arima ichubaac. Cristinaubeen sendotasunac lotsatu, ta sarri bigunduten cituban borreru gogorrac. Ume, zaar, gazte, estadu guztitetacuac eracusten ebeen atsegiñik andijeena, emotion lurreco vizitza laburra betico cerurucua irabazteco, ezagututen zala Jaungoicuaren indarra instrumntentu argaletan. Cristinu bacocha ilten ebeenian, dirausen Tertuliano jaquintsubac, bere odol tantac cirala beste aimbeste aci garau ugarituteco millaca cristinau barrijac. Ara bada celan zabaldu zan aiñ laster bazter guztietan Jesusen doctriña”.

### **Jaungoikoaren justizia**

Testu honeetan ikusten danez, zelako euskera ederra egiten eben markinarrak, orain berrehun urte. Eskerrak Mogueli, gaur egungo markinarrok harro sentitzen gara gure aurretikoen euskerea ezagutzeko aukera dogulako. Baita kristau bezala ere, ezin ukatu gauza on asko dituala Mogelen liburu honek. Baina esan behar da, badituala bere akatsak ere. Bat bakarrik aipatzekotan, liburuan zehar agertzen dan Jaungoikoaren irudi gogorra argi nabaritzen da. Jaungoikoak gugaitik agertzen dauan ontasuna baino guk bere aurka egiten doguna gehiago ageri da. Eta hortik sortzen da Jaunaren bekozko iluna. Eta horretarako gure penitentzia latzak, gure oparien eskeintzak, gure espiazioen premina, gure pekatuen erreparazioak...

Pekatuaren tamaina neurtzen da, ez ofentsa egin dabena-gandik, ofentsa hartu dabena-gandik baino. Horregaitik, giza-diaren jatorrizko pekatuaren ondorena oso iraingarria izango da Jaungoikoarentzat. Jaungoikoa infinitua danez, Jaungoikoaren aurkako pekatua ere infinitu bihurtzen da. Eta zelan berreskuratu Jaungoikoaren amodijoa? Zelan adiskidetu Jaun-

goikoagaz? Gizakion egiteak mugatuak badira, zelan berreskuratu hain iraindurik dan Jaungoikoaren amodioa?

Nolakoa ofentsa hartzaillea, halakoa pekatuaren larritasuna ere. Pekatuaren larritasuna neurtzen da, ez ofetsa egin dauanagandik, ofentsa hartu dauanagandik baino. Jaungoikoa infinitua danez, gizakion pekatua ere beti izango da infinitua. Esaterako, anaia batek bere anaiari belarrondoko bat emotea edo bere amari belarrondoko bat emotea, larritasun oso ez-bardinekoa da. Holako zerbait gertatzen da Jaungoikoaren kontrako irainaz ere. Jaungoikoa infinitua danez, bere aurkako iraina ere infinitua da. Eta zelan lortu barriro ere Jaungoaren adiskidetasuna? Jaungoikoaren justizia oso osoa danez, kaltetuari zor jakona emon behariko. Espiazio orokorra, satisfazio totala eskatzen dau Jaungoikoaren justiziak. Zelan ordaindu gizakiok geure errua? Gure opariak, penitentziarik latzenak, sakrifiziorik handienak, ezinezkoak dira Jaungoikoaren haserrea mantsotuteko! Gizakion damua eta satisfazioak mugatuak diranez, ezin leiteke inondik inora Jaungoikoaren justiziaren egarria ase. Orduan ez dago beste biderik, Jaungoikoa bera gizon egitea baino. Horregaitik Hirutasun Deunaren Bigarren Pertsona gizon egiten da, bere odolaz eta bere biziak Jaungoiko Aitari merezi dauan bete-beteko satisfazioa ordaintzeko. Jesukristok, gizon egindako Jaungoikoaren Seme bakarrak, bere kurutzeko odolaz eta bizia emonez ordaintzen ditu gizakion hoben zantarrak eta erru penagarriak.

Pentsamendu honeek Mogelek zabaldu ebazan gehienbat Markina aldean. Baina Anselmo Canterbury-koaren teoriak ditugu. Eta kalte galantak egin zituen hainbat markinar kristauren artean. Markinar idazle jator batek honela idazten dau hogeigarren mendean bere esperientzia: "Pekataria da mundua eta pekatuak Jainkoaren asarrea sumindu oi dau, Jainkoak berak ekarri gaitu gu komentura. Zertarako? Oinaztarrietatik etxea zaintzen dauan oiñeztorratza lez izateko, goi asarrea arindu daikegun. Munduari on izan gakiozan geure egune-

roko meza, otoiz, buru auste ta ukapenak, janari ta gañerakoak pekatarien alde eskintzen geuntsozan Jainkoari. Baita bakotzak bere gorputza astintzen be ´Miserere mei Deus´ salmua abesten genduan bitartean”.

Pentsakera hau ez da bat ere kristauena, bai oster, kristau ez diran erlijio guztiena. Oinaztarri edo tximistorratzaren irudia, benetan esanguratsua, larregi erabilia sermolarien artean ere.

### **Jaungoikoaren maitasuna**

Harritzekoa bada ere, Mogelek bere pentsamendu honeek hemeretzigarren mendean idatzi ebazan. Mende berean, 24 urtekin, hil zan karmedar monja gazte batek Jaungoiko guztiz errukitsua agertzen deusku. Mogelen Jaungoikoa justizia besterik ez dogu. Lisieuxko Teresaren Jaungoikoa, oster, maitasuna besterik ez dogu. Ikusi ditugu Mogelen testu inportanteenak. Orain Teresa Lisieuxkoaren pentsamendu eder batzuk adieraziko ditut. Zelako gauza ederra izango zan orduko eta geroko markinarrontzat, Mogelen euskera ederrean Teresitaren pentsamenduak alkartuta agertu izan balira. Mogelen euskera Lisieuxko Teresaren Jaungoiko errukitsuaz lotuta, zelako zoriona izango zan markinarrontzat. Mogelen euskereaz, Lisieuxko Teresaren Jaungoikoren irudia iragartea.

Goazen Teresitaren aparteko pentsamendu zoragarri batzuk gogoratzera. Mila perla ditu Teresitak Jaungoikoaren maitasuna gogoratzeko. Jaungoikoaren bildurrez eta eskrupuluz beterik bizi zan bere lagun gazteari haxe dinotso: “Ai, ene neba, zein gutxi ezagutzen diren Jesusen ontasuna eta haren maitasun errukitsua” Eta kezka azosita egoan bere ahizta Zelnari badinotso: “Hau poza zorameneraino maite gaituanarengatik munduaren begietan erotzat hartuak izatea!... Baina azken batez, gu ez gara lehenengoak! Herodesek Jesusi leporatu zion krimena zoraturik egotearena izan zen... eta nik ere

hark bezala pentsatzen dut!... Bai, zoraturik zegoen; haren eromena, errege-aulki bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean. Jesus kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Errege!... Jesus beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! Eroturik egon behar zuen gure Maiteak, eta bere lagun, bere kutun, bere pareko egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste bi Pertsona Gurgarriekin hain zorionsua zena! Guk ezingo ditugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin”.

Beste esperientzia zoragarri honegaz azalduko dau bere barneko maitasunez beteriko bizitza hunkigarria. Pare bat hilabete hil aurretik, otoitz eder honetan laburbilduko dau Tere-sitak bere bizitza: “Zure maitasunak, Jauna, aurrea hartu dit haurtzarotik, nirekin batera hazi da, eta orain haren sakona neurtu ezin dudan hondalea da. Maitasunak maitasuna erakartzen du: horregatik, ene Jesus, nire maitasuna zureganantz amiltzen da: erakartzen duen hondalea bete nahi luke, baina ai!, ez da itsasoan galdutako ihintz-tanta bat bera ere... Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna bera eskatu beharko nizuke maileguz. Orduantxe soilik gelditzen naiz lasai”

Ez Antselmo Canterburiko teologoari, ez hainbeste urtetan Markina-Xemeingo parroko izandako Juan Antonio Mogeli eta ez beste askori bururatu ez jakena, Teresa Lisieuxko gazteak argi ikusiko dau, ez bakarrik gizakion pekatuak zeharo iraintzen dabela Jaungoiko Aita ona. Askoz ere gehiago poztuten dabela Jaungoiko Aita gizakion asmo onak. Entzutekoa da normandiar gaztearen lorategiko parabola hunkigarria:

“... Nola frogatuko du hark bere maitasuna, maitasuna egintza bidez frogatzen baita? Hara! Haurtxoak loreak botako ditu; haien usain gozoz lurrinduko du errege-tronua, bere ahots zoliz Maitasunaren kanta abestuko du... Oi, ene Maitea, hona hemen nola iraungiko den nire bizitza!... Nik ez dut neure maitasuna erakusteko beste erarik loreak botatzen izan ezik;



hau da, sakrifizio txiki bat, hitz bat ere alferrik galtzen utzi gabe, gauzarik txikienak ere aprobeztatuz eta maitasunez eginez... Nik maitasunarren nahi dut sufritu, eta baita gozatu ere maitasunarren; horrela botako ditut loreak zure tronuaurrean. Ez dut bidean lore bat ere aurkituko zuretzat hostokatu gabe... Gainera, kantatu egingo dut loreak botatzerakoan (egin ote daiteke negarrik hain egintza pozgarria eginez?, kantatu egingo dut, neure loreak arantza artean bildu beharra balego ere; eta zenbat eta luzeagoak eta zorrotzagoak izan harentzat, hainbat eztsuagoa izango da nire kantua.

Zertarako litzazkizuke, Jesus, nire lore eta kantak?... Ai! Ongi dakit nik, euri lurrindu hau, petalo hauskor eta inolako baliorik ez duten hauek, bihotzik txikienaren maitasun-kanta hauek liluragarri gertatuko zaizkizula. Bai, huskeria horiek atsegin emango dizue, irribarre eragingo diete zeruko Elizari, berak bilduko ditu maitasunarren hostokaturiko nire loreak eta zure-jainko eskuetatik pasaraziz, oi Jesus!, zeruko Eliza honek, bere haurtxoarekin jostatu nahirik, berak ere bota egingo ditu lore hauek zure jainko-ikutuaz neurrrigabeko balioa hartu ondoren; hark sufrikariozko Elizaren gainera botako ditu honen sugarrak itzaltzeko; honek lurreko Elizaren gainera botako ditu garaipena lor dezan” (B Ezk 4<sup>a</sup> – 4i)

Baditu Teresitak beste mila testu hunkigarri Jaungoikoaren errukia kantatzen dabenak. Baleiteke ezagunena, 1895. urtean, ekainaren 9an, 22 urte dituala egindakoa, “Jainko Onaren Maitasun Errukitsuari” egindako bere buruaren eskaintza, izatea.

Hor ez da ageri Juan Jose Mogelen kristau dotrinaren inondiko izpirik ere. Ezta beste honetan ere. Teresitak hogeita lau urte ditu. Laster hilko da tuberkulosi geixoak jota. Honela amaituko dau bere autobiografia edo eskuizkribua: “Bai, ziur nago egin daitezkeen bekatu guztiak neure kontzientziaren gain banitu ere, bihotza damuaren damuz urraturik joango

nintzatekeela Jesusen besoetan neure burua uztera, berarengana itzultzen den seme galdua zein maite duen ondo dakieta. Ez da izan Jainko onak, bere errukiaz aurre arturik, nire arima bekatu astunetik gorde duela harengana igotzea, konfiantza eta maitasunagatik baizik”

Hurbilago dago Lisieuxko Tresitaren Jaungoikoa, Kristo Jesusen Jaungoikoagandik, Juan Jose Mogelen Jaungoikoa baino. Juan Jose Mogel ez zan izango gauza Lisieuxko Teresaren berba jenial honeek amesetan ere esateko: “DAN-DANA DA GRAZIA”.

### **Justizia eta Grazia**

Jaungoikoaren justizia eta Jaungoikoaren grazia alkarri lotuta doaz. Ze ederto Benedikto XVI.ak argitzen dauan bion arteko lotura. “Spe Salvi” deritxon Entziklika ederrean idazten dau:

“Justiziaren izenean Jainkoaren aurka garrasi egiteak ez du balio. Jainko gabeko mundua itxaropenik gabekoa da. Jainkoak soilik egin dezake justizia. Eta fedea ematen digu ziurtasun hori: Berak egiten du. Lehenik, azken epaiketaren irudia ez da izua sortzen duen irudia, itxaropena duena baizik; agian, guretzat, itxaropenaren irudia erabakigarria. Baina ez ote da beldur-ikara sortzen duen irudia ere? Nik erantzukizuna eskatzen duen irudia dela esango nuke. Beraz, San Hilariok aipatzen duen izu haren irudia, gure beldur oro maitasunarekin erlazonaturik dagoela dioenean. Jainkoa justizia da eta justizia egiten du. Hau da gure poza eta gure itxaropena. Baina haren justizian grazia ere badago. Hori ikusten dogu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuari begiratzean. Biek –justizia eta grazia– beren barne-erlazio zuzen batean ikusiak izan bear dute. Graziak ez du baztertzen justizia. Ez du zuzengabekeria zuzen bihurtzen. Ez da guztia garbitzen duen eskuila, lurrean egin izan den guztia beti balio bereko izatera iritsiz. Era honetako zeru eta

graziaren aurka protesta egin zuen arrazoiz Dostoevski-k Los hermanos Karamazov bere eleberrian. Azkenean gaiztoak, bertierako otorduan ez dira eseriko mahaietan biktimen ondoan, ezer gertatu ez balitz bezala”

Euskal Herriak, hogeigarren mendean, emon izan dauan gizon bikain batek, berau markinarra, eskuetan dakargun gaia uztartzeko, Arkimedesen oinarria dakar burura esanez: “Justizia maitasunik gabe, eusle-puntua falta jakon palankearen antzekoa da mundua jasoteko”.

Juan Jose Mogelegaz harro sentitzen gara markinarrok geure aurretikoen euskera ederragaz, baina ez hainbeste, bere kristau ikasbideaz. Bai, oster, pozaren pozez maite dogu Teresa Lisieuskoaren errukiz beteriko Jaungoikoa.

*A. Olea*